

# GATIBU

## DVD + CD + HIRU ABESTI BERRI

Gatibu taldearen sorrera (Gernika, 2002) Haimar Arejita (gitarra) eta Alex Sarduri (ahotsa) zor zaie. Gatibu taldeak beste bi zutabe ere badiu, Gaizka Salazar (bateria) eta Mikel Caballero (baxua). Laukote honek euren musikarekin hainbat aldiz jo du Euskal Herriko musikaren gailurra, bai diskoaren salmentari dagokionez ("Zoramena" diskoaren salmenta lekuko) eta baita zuzeneko ekitaldiei dagokienez (2009ko bira lekuko, hots, DVD hau). Diskoen salmenta erruki gabe etorri da oso behera, Gatibu taldeak, ordea, kopuru itxurosoetan dago kokaturik. Zuzenekoetan beti izan du ikusle-entzule amorratuen bultzada eta jarraitzaile asko emanaldiz emanaldi. 2009ko hasieran Gatibu taldearen soinu sasoi inoiz baino hobea zela ikusirik, une horien irudi eta soinua DVD batera ekartzea pentsatu zen eta estudioan grabatutako hiru abesti berri gehitzea opari modura. Hemen emaitza.

Gatibu taldearen laugarren diskoak "Zuzenean bizitzeko gogoia" izenburua du. Bi euskaritan argitaratu da. Bat, DVD + CD. Bi, CDa bera bakarrik. 2009ko abuztua eta irailan grabatu dira DVDan agertzen diren irudiak eta abestiak. Donostiako Aste Nagusian, Bilboko Aste Nagusian, Gernikako Jaietan eta Durangoko Plateruena Kafe Antzokian emandako zuzenekoetatik bildu da "Zuzenean bizitzeko gogoia" DVDa. Zuzeneko irudien grabazioa eta postproduzioa Berde Produzioak enpresak egin du (Gorka Bilbao eta Fermin Aio). Zuzeneko audioak Muxik-on estudio mugikorren grabatu dituzte Iñigo Etxebarrietak, Aitor Ariñok eta Jose Alberto Batizek. Nahasketa eta masterizazioa Iñigo Etxebarrietak (Pitu) egin ditu Muxikako Muxik-on estudioan. Cdaren bukaeran, zuzeneko abestien ondoren gatibu taldeak hiru abestiberi grabatu ditu 2010eko iraila eta urrian Lorentzo records estudioan Iñigo Etxebarrieta soinu teknikariarekin eta Aitor Ariño eta Iñaki Anton laguntzaile lanetan. Jorge Pachecok jo ditu perkusioak eta koruetan Asier Gusmano, "Pitu" eta Gorka Roman. Nahasketa eta masterizazioa Muxik-on estudioan Iñigo Etxebarrietak egin ditu. Ekoizpena Gatibu eta Iñigo Etxebarrieta izan da.

Gatibu taldearen "Zuzenean bizitzeko gogoia" DVD + CDa euren laugarren lana da. Euskal Herriko talderik indartsuenetarikoa, DVD batean bildu du bere zuzeneko indartsuena. Gatibu taldea sasoi bete eta indarberriarekin itzuli zen euren hirugarren diskoarekin "Laino guztien ginetik, sasi guztien azpitik". Egoera horri etekina atera beharra zegoen eta horren emaitza da "Zuzenean bizitzeko gogoia". Donostia, Bilbo, Gernika eta Durangon emandako zuzeneko horien irudiak era ederrean bildu ditu Berde Produzioak. DVDak Gatibu taldearen isla txukuna eta benetakoa da. DVDak garbi erakusten du taldearen apaltasuna, herrikoitasuna. Entzulearekin berehala egiten du bat, amarririk ez du behar, iruzurrik ez. Gatibu taldearen amu bakarra bere zintotasunean datza. Gatibu taldeak ezin du erakutsi eurak direna baino gehiago. Zergatik? Ez dakitelako. Horregatik Euskal Herriko talderik indartsuenetarikoa du zuzeneko itzalenetakoa. Soinua grabatu zen bezala dago, hori bai, bikain nahastuta. Zertarako grabatu zuzeneko gero estudioan behin eta berriro eraberritzeko? DVDak Gatibu taldearen egiak erakusten ditu. Egon daitekeen amu bakarra estudioan propio grabatutako hiru abesti berri horiek izan daitezke. Betiko Gatibu, itsaskorrek behin eta berriro. Gatibu Euskal Herriko rockaren gailurrean.

Zuzenean bizitzeko gogoia



Gatibu, benetako zuzeneko soinua. Aldaketa, zuzenketa eta konponketarik gabe, jotakoa berdin gordeta. Gatibu taldeak zuzenean duen indarraren adierazle?

**Gure zuzenekoetan entzuten denaren isla zintzoa egin dugu, akatsak utzi eta ikusleari gauzak hurbil-hurbiletik eta era**

**biluzian erakutsiz. Ez dago tranparik, ez makillajerik. Uste dugu zintzotasuna eta naturaltasuna gauza politak direla, eta taldearen ezaugarri garrantzitsu bi ere badirela. Gure indarra naturaltasunetik dator.**

Gatibu taldeak zuzenekoari estudioan grabatutako hiru abesti berri gehitu dizkio. Zergatik?

**Hiru abesti berri sartzearen arrazoia, zerbait berria sortzeko beharrezanetik dator. Gainera, zuzeneko tanda berrian ez genituen betiko kantak bakarrik jo nahi eta hiru abesti berri freskotasuna ematen die zuzenekoari. Gainera, jendeak zerbait berria entzutea eskertuko zuela pentsatu genuen eta horregatik egin ditugu abestiak.**

Gatibu taldeak entzule-ikusle aktiboak ditu gustuko eta, zuzenekoetan, lortu egiten du, seigarren marxa sartuta baitu.

**Bai, hala da. Gatibu taldearen zuzenekoetara jendea ondo pasatzera, abestera eta dantzatzera dator. Ordu t erdian adrenalina soltatu, estresa kendu eta arima alaitzen dugu jendearekin batera kantatuz. Hori da garrantzitsua, denon artean jai dibertigarri bat montatzea. Eta osasuna falta ez zaigun artean 6.,7. edo behar diren marxa guztiak sartzeko prest gaude!**

ritxi aizpuru (2010eko azaroaren 30ean)  
Elkarrizketak: 690 704 255

**Gaizka Salazar:** bateria  
**Mikel Caballero:** baxua  
**Haimar Arejita:** gitarra  
**Alex Sardui:** ahotsa

Diskografia:

Zoramena (Oihuka, 2002)

Disko infernu (Oihuka, 2005)

Laino guztien ginetik eta sasi guztien azpitik (Baga-Biga, 2008)

Zuzenean bizitzeko gogoia DVD + CD (Baga-Biga, 2010)



baga-biga musika ideiak  
telef. 618 072 076 /026  
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com